

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Txita more txikia

Arrate Egaña

EREIN


38 orrialde

8,26 euro

Txita txikia eta neskatoa

Arrate Egaña idatzi du kontakizun hau eta Mari Mar Agirrek egin ditu marrazkiak. Liburuko protagonista animalia zalea da. Anai-arrebak etxean utzita, amarekin eta izeba Pakitarekin erosketak egitera atera, azokara iritsi eta txoko batean txita more txikia aurkitu zuen. Arra zen eta arrautza jarri ezin zuenez, bere jabeek bota egingo zuten, baldin eta gure protagonista bezalako neska panpoxa batek bere etxera eraman izan ez balu. Gogoz kontra, amak azkenean txita erostea onartu zuen. Etxera iritsi eta ahizpa handia izugarri poztu zen txita ikustean, berehala ahaztu bazuen ere. Biki

txikiek beldur pixka batez begiratu zioten, hanka batetik heldu eta lurrera bota arte. Orduan, protagonistak erabaki zuen berak bakarrik zainduko zuela txita. ■



Cocina con Bruno Oteiza

Bruno Oteiza

BAINET

200 orrialde

22,95 euro

Bruno Oteizaren sukalde errezeta besteak ez bezalakoak

Gaztea izan arren, herrialde askotan lan egin da gaur egun Mexikon jatetxea duen Bruno Oteiza sukaldaria. Eta lekuan lekuko sukaldaritzak irakats diezaiokeena ikasteko prest dagoen gizona denez, bere sukaldaritzan osagai horiek gehitzen ahalegindu da. Baint argitaletxeak kaleratutako *Cocina con Bruno Oteiza* liburuan, sukaldariak bere garaian telebistan eskaini zituen errezetak bildu dituzte. Bereziak dira, baina etxean egin daitezke guztiak, bai piperrez lagundutako odolki krocketak, baita babarrun saldarekin gozatutako urdai karamelatua ere; eta txapelaz hornitutako kuiatxo beteak, txanpinoi apartak, indabaz lagundutako zerri belarriak, izokinaz egindako hainbat plater, edota pikilo piperrez osatutako bakailaoa pil-pilean. ■

Immigrazioa aztergai

Immigrazioaren fenomenoak da *Jakin* aldizkariaren azken zenbakiko gai nagusia. Euskal Herriko testuinguruaz jardun dute Xabier Aierdi, Pedro Albite eta Amelia Barquin irakasleek, bakoitzak fenomenoaren ikuspegi diferentea landuz. Aierdik Hego Euskal Herriko immigrazioa aztertu du; Albitek kultur-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioetako migrazioa uztartu ditu; Barquinek berriaz, etorkinen eta euskara ikastearen inguruko gogoeta proposatu du. Gainera, Ricard Zapata-Barrero Pompeu Fabra unibertsitateko irakaslearen artikulua ere badakar aldizkariak. Quebec, Flandes eta Kataluniako egoera du aztergai Zapata-Barrerok. *Egunen gurpilean* sailean berriaz, Xabier Gantzarain, Iñaki Irazabalbeitia, Uxue Alberdi, Lionel Joly, Joxe Aranzabal eta Aitor Zuberogoiak gaurkotasanarekin lotutako gaiak landu dituzte. ■



Jakin

Batzen artean

JAKIN

168 orrialde

45 euro

(urteko harpidetza)

Zalduaren Itzalak lau hizkuntzatan

Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen elkarteak plazaratzen du *Senez* aldizkaria. Argitaratu berri den 33. zenbakia berezia da, euskal literaturaren lagin bat hizkuntza ugartan biltzen duelako. Oraingoan Iban Zalduaren *Itzalak* ipuin liburitik hartutako izen bereko narrazioa kaleratu dute, jatorrizko hizkuntzan ez ezik, Angel Errok gaztelaniara, Christiane Bendelek alemanera eta Roberta Gozzik italierara egindako itzulpenetan. Aldizkarian hori baino gehiago ere badago gainera. Esate baterako, Iban Zalduaren *Itzulpengintza* testua ageri da aldizkariaren hasieran, eta amaiera gisa, Kristin Addisek ingelesera itzuli duen *Nekane* kontakizuna dago, baita Iban Zalduak berak euskarazko *Nekane* ipuinarekin egin duen gaztelaniako autoitzulpena ere. ■



Senez

Batzen artean

EUSKAL ITZULTZAILE,
ZUZENTZAILE ETA
INTERPRETEEN
ELKARTEA

110 orrialde



Los impresentables

Tomás Afán

ARTEZBLAI

88 orrialde

Demokraziaren erresumako antzerkia

1968an Jaénen sortutako Tomás Afánen *Los impresentables* antzezlaneko protagonistek antzerkigintzan jardun nahi dute. Horretarako, hainbat lan moldatuko dituzte. Baina demokrazia eta adierazpen askatasunaren erresuman bizi direla jakin arren, beti daukate arazoren bat bururatzen zaizkien lanak antzeztu ahal izateko. Gaixotasun sendaezina dutenen egoera agertzea ez da oso atsegina; terrorista filantropikoari bizia ematea ez da egokitzat jotzen; emakumeen aurkako tratatu txarrak eta bortxaketak plazaratzean ere ez dabilta oso fin; Jainkoa edo Ala tartean sartzen dituztenean ez dute asmatzen; edo, beharbada, terrorista beldurgarrienak nortzuk diren argiegi azaltzen dute. ■

Arkume eroaren gaixotasuna haurrei zuzendutako liburuan

Serafin arkumeak arreba txiki bat dauka. Caligulina du izena. Jaio zen egunean amak biberioia eman zion. Baina Caligulinak eskuetan hartu eta txikitu egin zuen, haragia nahi zuela oihukatuz. Beraz, amak xerra handi eta zuku-tsu bat prestatu behar izan zion. Eta geroztik haragijale amorratu bihurtu zen Caligulina. Gose aseezina zeukan arkume txikiak. Bi letagin txiki atera zitzaizkion hainbeste haragi jateagatik. Serafin berari ere koska egingo zion sabela betetzeko okela puska bat eman ezear. ■

Arreba haragijalea

Tai-Marc Le Than

IBAIZABAL

32 orrialde / 7,20 euro



TXILLARDEGI

«Beharrezkoa da astronomia giza patua zentzuz ezartzeko»

1970ean ETAko militanteek 6 heriotza-zigor eta 752 kartzela urteri aurre egin behar izan zieten, zein izan zen Jean Paul Sartreren jarrera?

Franco goraki gaitzetsi eta ETAko militanteen alde "arrunt bustitzea" erabaki zuen.

Eta zure saio hauetan bera gogoratzeko arrazoiak?

Garai hartako "modako *gauche divine*" espainolistaren kontra, eta Francoren kontrako oposizioan PCEk isilpean bildutako ospearen aurka altxatzean, urrats erraldoia egin zuen Sartrek Espainian benetako ezkerre eta Euskal Herrian ezker abertzalea sorzitean. Horregatik idatzi izan dut zenbait aldiz badela garaia Sartreren omenez kale edo enparantza batzuk beraren izenaz bataiatzeko.

Rosalía de Castro ere gogoratzen duzu. Zergatik?

Galizia neure bigarren aberritzat daukat. Lurreldea gogoratzean, Rosalía poeta hilezkorrak hain zehazki azaldu zigun herriaren patu hitsaren oinazea datorkit. Azkeneko espainiar kolonia izan baita Galizia, gu berandu arte jabetu ez arren.

Eta gainerako gaiak, zer dela-eta aukeratu dituzu?

Gai unibertsalak ukitzen dituzte. Ameriketako genozidioa salatu behar dela iruditzen zait. Eta oraindik gure artean darwinismoak merezi duen maila ez duela jaso. Bestalde, *Antropokeriak* saioak erlijioaren eta antropozentrismoaren kritika gogorra izan nahi du. Azkenik, bi saiakera moldatu ditut astronomiaz. Giza patua eta lekua zentzuz ezartzeko guztiz beharrezkoa iruditzen zait. Liburu hau eskaini nahi nieke, beraz, giza arazo nahasiak beren haragi eginek ere, kosmosaren eskergatasun misteriotsuak pentsakor uzten dituen guztiei.



Txillardegik eskainitako zazpi saiakera biribil

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik (Donostia, 1929) bizitzak eta bere irakurza-

letasun etengabeak eman dion eskarmentutik idatzi du *Horretaz. Zazpi saiakera labur* liburua. Duela 42 urte idatzitako beste saiakera batzuk gogoan –Goiztiri argialetxearen argia ikusi zuen *Huntaz eta Hartaz* liburukoak alegia–, trilogia osatu nahi izan du oraingo saiookin. Aurrenekoa Jean Paul Sartreri eskaini dio, iruditzen zaiolako ezezagun dela oraindik ere gurean, Euskal Herrian ahanztura besterik mereziko ez balu bezala. Rosalía de Castro eta Galizia dauzka hizpide bigarrengean –herrialde hau bere "bigarren aberritzat" dauka, eta besteak beste, 52 urte joan dira Ferrolen *Leturiaren egunkari ezkutua* idatzi zuenetik–. Hortik aurrera, Ameriketako genozidioa –Herbeheretan eta



Horretaz

Txillardegik

ELKAR

220 orrialde/

19,50 euro

Kanariar irletan gertatutakoak ahaztu gabe–; gure artean darwinismoak merezi duen maila izatearen aldeko aldarria, eta erlijioaren eta antropozentrismoaren kritika gogorra egin ditu. "Munduaren ardazta ez garelako", giza patua eta lekua zentzuz ezartzeko guztiz beharrezkoa iruditzen zaiolako, astronomiari eskaini dizkio azkeneko bi saioak. ■

egileari galdezka